

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “2019-KO MAIATZAREN 26-KO BATZAR  
NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK. HAUTESKUNDE  
KONTABILITATEA”REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Joan zen azaroaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuen 2019ko maiatzaren 26ko Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeei dagozkien hauteskunde gastuen kontabilitateari buruzko fiskalizazio txostena.

Txostenak ondorioztatu du hauteskunde horietara aurkeztutako alderdi politikoez zuzentasunez bete dutela indarreko legeria hauteskunde-gastu eta finantzaketa gaietan; halaber, ez dituzte gastuetarako finkatutako mugak gainditu eta fiskalizatua izan dadin hauteskunde-kontabilitatea Legeak agindutako epearen barruan aurkeztu dute.

Bestalde, Txostenak adierazi du udaletako eta Europako hauteskundearen eta talde politikoen kontabilitatearen fiskalizazio lana Kontuen Epaitegiari dagokiola. Ezin egiaztatu izan dugu kontabilitate horietan hauteskunde hauei dagozkien gastuak barne hartu diren. Gainera, HKEEk ez du aztertu aurkeztutako kontabilitateez beste edota Hauteskunde Batzorde Probintzialesi jakinarazitako hauteskunde-kontu korronteez beste ba ote dagoen erregistratutako ordainketa eta kobrantzarik.